

Jasangarritasunaren leloa lau haizeetara Bizkaian

Kortabitarte Egiguren, Irati

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Garapen jasangarria asko erabilitako hitza da benetan. Irratian, telebistan nahiz egunkarietan hamaika aldiz entzun edo irakurri ditugu kontzeptu horrekin loturiko albisteak, hala nola duela hamabost urteko Rioko Gailurrari buruzkoa. Dena den, ez pentsa kontzeptua bera zaharkitua geratu denik. Moda-modakoa izaten jarraitzen du, eta horren adibide da Bizkaiko Foru Aldundiak abiarazi berri duen egitasmoa. Nolabait, kontzeptu horren xehetasunak erakutsi nahi dizkie herritarrei.

ZER ESAN NAHI DU EDO ZER ADIERAZI NAHI DA hainbestetan entzun ohi dugun garapen jasangarriaren kontzeptu horrekin? Garapen jasangarriaren definiziorik ezagunena 1987an eman zuen Brundtland txostenak. Definizio haren arabera, garapen jasangarria da “gaur

egungo beharrianak asetzen dituena, etorkizuneko belaunaldien beharriak asetzeko gaitasuna kolokan jarri gabe”. Txosten hartan bertan, ingurumenaren babesa, gizartearen garapena eta hazkunde ekonomikoa gai bakartzat hartzea eskatzen zen.

Baina ez da batere kontzeptu erraza barneratzeko; izan ere, gaur egungo bizimoduan termino kontrajarriak dirudite garapenak eta jasangarritasunak. Garapena hazkundearen sinonimotzat hartzen dugu, eta ekonomiaren helburua mugarik gabeko hazkuntza da. Hazkuntzak, ordea, behar-beharrezko ditu baliabide naturalak, eta horiek mugatuak dira.

Azken batean, garapena bizi-kalitatea hobetzearekin lotzen da, baina baliabide naturalak ahalik eta gutxien hondatuz.

Hazi bai, baina heziz

Etorkizun jasagarria eraikitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, arestian aipatu bezala, garapen jasagarriaren inguruan hezi nahi ditu herritarrak. Izan ere, nork ezagutzen du udalerria herritarrek baino hobeto? Inork ez, argi dago. Horregatik da hain garrantzitsua haien iritzia aintzat hartzea; bai herriaren egoeraren diagnosis egiteko, bai zer ekintza egin behar diren aukeratzeko.

Horrekin lotuta, *Iraunaraztearen Arloan Hezteko Ekintzen Egitaraua (IHEE)* gidaliburua egin du Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko gizartearen jasangarritasunaren kultura zabaltzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak garapen jasagarriaren alde aspaldian duen konpromisoarekin dago lotuta. Konpromiso hori Bizkaia 21 egitarauan dago jasota. Alde batetik, Bizkaia garapena lortu nahi du, eta, bestetik, garapen jasagarriaren hiru zutabeak —ongizate ekonomikoa, gizarte-justizia eta ingurumen garbi eta osasuntsua— bateragarri izatea.

Dokumentu horrekin, ingurumen-hezkuntzan zer aurrerakuntza lortu diren erakutsi, eta jasangarritasunera iristeko jarduera berriak abiarazi nahi dituzte.

Dokumentuak bi atal ditu. Lehenengo zatia teorikoa da, batez ere; testuinguru orokorra, jasangarritasunean hezteko abiapuntu diren ildo nagusiak, lortu nahi dituzten helburuak eta



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da, mundu jasagarriagoa lortzeko.

horiek lortzeko tresnak eta bitartekoak garatzen ditu. Halaber, gai horri buruz nazioarteko zenbait konferentzian egin diren planteamenduak eta aholkuak biltzen ditu.

“Bizkaiko Foru Aldundiak garapen jasagarriaren inguruan hezi nahi ditu herritarrak”

Bigarren zatia, berriz, erabat praktikoa da. Zati horretan, gaur egun arte Bizkaian ingurumen-hezkuntzaren arloan

egin den lanaren balorazioa eta diagnostikoa egin dira. Aldi berean, jarduteko 9 ildo eta 48 ekintza proposatu dituzte, era askotakoak; ekimen berriak nahiz zaharrak.

Jarduteko ildo hauek proposatu dituzte: gizartearekiko komunikazio- eta informazio-bideak hobetzea, garapen jasagarriaren arloko hezkuntzara heltzeko ekipamenduen sarea hobetzea eta herritarren sektore guztietara iristea, Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan garapen jasangarrira iristeko esku-hartzea eta prestakuntza sustatzea, aztertu behar diren gaietan gehiago sakontzea, informazio- eta komunikazio- arloetako bitarteko eta tresna berriak txertatzea, parte-hartzea bultzatzea, bestelako prestakuntza-jarduerak osatzea eta ikerkuntza sustatzea.

Jarduera horiekin guztiekin, Bizkaiko Foru Aldundian gaur egun arte egin diren ingurumenaren arloko hezkuntza-programetan atzemandako hutsuneak eta akatsak gainditu nahi dituzte. Azken finean, helburua da herritarrek prestakuntza eta gaitasuna izatea garapen jasangarrira iristeko trantsizio-prozesuan esku hartzeko. Izan ere, nahiz eta, oro har, herritarrek kontzientzia gero eta handiago duten, oraindik ere zeregin ugari dagoela esan liteke.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaia 21 ingurumenaren aldetik soilik ikustea hankamotz gertatzen da.